

#JesusGureanEreBidelagun NERABEZAROAK

DELEGACIÓN DE ANUNCIO Y CATEQUESIS
FEDE ZABALKUNDE ETA KATEKESIRAKO ORDEZKARITZA

Bakea zuoi!!



BEGIRATU

Elkar... zer?

Elkartea!

‘Elkarte’ hitza entzuten duzunean, zer bururatzen zaizu? Autonomia erkidegoa da, auzotarren elkartea, zure kristau elkartea...

Duela 1.500 urte baino gehiago!, lagun batek honela azaltzen zuen beretzat elkartea zer den.

“Elkartea, elkarrekin otoitz egiten duten eta, gainera, elkarrekin solasean jarduten duten pertsonen taldea da; elkarrekin barre egiten dute, elkarri mesedeak egiten dizkiote, elkarrekin bromak egiten dituzte eta serio egoten dira; batzuetan ez datoz bat, baina desadostasun hori lokarria estutzeko darabilte. Elkarrengandik ikasten dute eta elkarri irakasten diote. Ez daudenak faltan botatzen dituzte eta pozez hartzen dituzte datozenak (...) elkartea, hainbat lagun bat den lekua da”. SAN AGUSTINEN ‘AITORTZAK’ liburutik egokituta.

Zuk, nola azalduko zenuke zer den zuretzat elkartea? Nola emango zenioke munduko beste puntako norbaiti zure auzo/herriko kristau elkartearen berri, nolakoa dela esango zenioke?

#JesusGureanEreBidelagun

Beste idazki hau K. o. ko II. Gizaldikoa da!

Orduko kristau elkarten bizimodu eta sinesbidea azaltzeko bidalitako gutuna da.

Kristauek ez dituzte gainerako gizakiak ez lurragatik, ez hizkeragatik, ez ohiturengatik bereizten. Ez dira beraienez bakarrik eraikitako hirietan bizi; ez dute beraiena bakarrik den hizkuntza mintzatzen, (...) herrialde bakoitzeko usadio eta ohituretara moldatuz, jokaera miwesgarria dute.

Herritar bezala, denean parte hartzen dute, baina zeruko biztanle dira, ezkondu eta seme-alabak dituzte. Guztientzako mahaia atontzen dute. Behartsu dira eta asko aberasten dute. On egiten dute eta gaizkile bezala zigortzen dituzte; juduek eraso egiten diete atzerritar balira bezala; grekoek jazarri egiten dituzte eta, hala ere, gorroto dituztenek ez dakite zergatik egiten duten.

Zoriontasuna ez datorrelako lagun hurkoa menderatsetik edo makalen gainetik egoteko grinatik edo behartsuen kontura aberastetik edo behartsuak gaizki hartetik. Zoriontasuna, lagun hurkoaren zama bere gain hartu eta beti on egiteko prest egotetik dator.

Diognetori idatzitako gutunetik egokituta

Zertan datoz bat orduko eta oraingo elkarteek?

Zeintzak dira elkarteetako kideen ezaugarriak?



JJesusek Espiritu Santua agindu zien bere apostoluei. Mendekoste-egunez gertatu zen hori (Jesusen Berpizkundetik 50 egunera). Gertaera garrantzitsua izan zen ikasleentzat eta garai guztietako Elizarentzat.



Ikusi bideoa: (klikatu esteka honetan)

Mendekoste-egunez, Espiritu Santua apostoluen gainera etorri, jaitzi zenekoa ospatzen da. Jesusek dei egiten dio berriz ere kristau elkarteari bere misioan parte har dezan: sendatu, lagundu, zerbitzatu, poza eman, mundu hobe eta gizatiaragoaren alde jardun.

Espirituarengandik jasotzen dugu hori egiteko indarra!!

[Pusla aqui para ver el video](#)



Klikatu estekan, Joanek dioskuna irakurtzeko

Mendekoste-eguna, elkartearen ospakizuna da; apostoluak taldea ziren eta elkarte bihurtzen dira. Jainkoaren Erreinua eraikitzeko Jesusen misioari jarraipena emateko bidalia den bizi-elkarte bihurtzen dira.

Eta une berean hasten da zuzentasun eta bakearen alde jarduten duen eta behartsuenen esanetara jartzen den Elizaren, Jainkoaren herriaren historia ere.


OTOITZEAN

Bilatu leku lasaia, barneko eta kanpoko isiltasuna egon dadin (...), eta Aita-Ama Jainkoaren presentzia onberak bete zaitzala.

Gutxien uste duzun lekuan,
dena tristura grisez beteta
dagoen lekuan,
inork uste eta amesten ez duen
lekuan,
zerumuga lainotzen den tokian...
Posible da bizia Espirituaren
indarraz!!

Elkarri begiratzen dioten begietan,
esan gabeko hitzetan,
eusten duten besoetan,
zure bihotzean...
Posible da bizia Espirituaren
indarraz!!

Floren Ulibarri



Hona hemen Espiritu Santua irudikatzen diren sinbolo batzuk: usoa, haizea, sua. Haizea, indar ikusezina baina benetakoa da, aurpegian senti dezakezu eta gogor jotzen badu, pisu handiko gauzak ere mugi ditzake. Sua, garbitzailea da, San Joan egunez gauza txarrak erretzen duguzanean bezala.

Espiritu Santua indar ikusezin eta ahaltsua da; guregan dago, haizearekin gertatzen zaigun bezala, ikusterik ez badugu ere, sentitu egiten dugulako.

Jainkoa Aita-Amak bere dohain eta fruituak bidaltzen dizkigu Espirituaren bidez, Erreinuaren eraikitzaile izan gaitezen!



ZER PROPOSATZEN DIZUGU?

Collagea egin, Espiritu Santua, bere indarra, presentzia ikusezina, eragina... irudikatuz.

Beti bezala egin dezakezu, ebakinez, itsasgarriaz, guraizeez eta koloreez baliatuz.

Ordenagailuan edo tabletean egin dezakezu, <https://piccollage.com/> appa edo eskura duzun besteren bat erabiliz.

Batera jarri taldekideen aurrean, azaldu eta beste batzuei erakutsi nahi badiezue, #JesusGureanEreBidelagun hashtagaz baliatu.

ESCAPE ROOM

MENDEKOSTE FESTAREN ZENTZUA
ETA ESANAHIA EZAGUTU, ULERTU
ETA SAKONTZEKO

Klikatu marrazkian jokoan sartzeko